



ZESTOAKO UDALA

## BASERRITARREN BATZARRA

Hirugarren saioa: Arroagoia, Arroabea, Arroaerreaka, Iraeta, Ibañarrieta

**Bilera data** : 2024/11/06 **Lekua** : Arroagoia, Herri Etxea  
**Hasiera ordua** : 18:00 **Bukaera ordua** : 19:45

### Bertaratutakoak:

I.L.	<b>Tellerietxeberry (Arroaerreaka)</b>	J.M.I.	<b>Irureaundi (Ibañarrieta)</b>
M.K.U.	<b>Arbea (Arroagoia)</b>	I.U.	<b>Loperenaberry (Arroabea)</b>
G.A.	<b>Arbea (Arroagoia)</b>	J.R.U.	<b>Gure Ametsa (Arroabea)</b>
A.A.	<b>Larrazabalberri (Narrondo)</b>	A.B.	<b>Gure Ametsa (Arroabea)</b>
A.U.	<b>Larralizar (Narrondo)</b>	X.E.	<b>Katzaola (Arroabea)</b>
M.N.Z.	<b>Olaberry (Arroabea)</b>	L.E.	<b>Lokatza (Iraeta)</b>
A.I.	<b>Olaberry (Arroabea)</b>	J.M.U.	<b>Lokatza (Iraeta)</b>
J.E.	<b>Etxetxoberri (Arroaerreaka)</b>	I.G.	<b>Partakua (Ibañarrieta)</b>
A.O.	<b>Etxetxo (Arroaerreaka)</b>	J.U.	<b>Larrazabalgoikoa (Narrondo)</b>
J.E.	<b>Zugastitxiki (Arroagoia)</b>	M.A.	<b>Aldaka (Arroagoia)</b>

Lorea Ilundain	<b>zinegotzia</b>	Montse Atxega	<b>zinegotzia</b>
Aitor Ossa	<b>zinegotzia</b>	Izaskun Larrañaga	<b>ingurumen teknikaria</b>

Lorea Ilundainek, Auzoerria eta Baserriak batzordeko buruak, jakitera eman du baserriarrek urtean hiru batzar egingo direla; zonalde bakoitzean bat.

Gaitegitik kanpora, Movistarrerako lanean ari den Elecnor enpresatik Antonio etorri da, landa guneeetan, zuntzarekin lotuta, laster gauzatuko den proiektuaren berri ematera. Honakoak azpimarratu ditu:

- Europako dirulaguntzekin banda zabaleko hainbat proiektu gauzatuko dira Zestoan.
- Auzoetan zuntzik ez duten baserrietara iristeko proiektuak ateratzen joango dira.
- Gutxi berru hasiko duten proiektuan puntu hauetara iritsiko dira:
  - Endoia auzoa 13 (Lastur)
  - Endoia auzoa 14 (Lastur)
  - Endoia auzoa 5 (Lastur)
  - Areitzagabidea 3
  - Areitzagabidea 6
  - Areitzagabidea 7
  - Arroaerrekako bidea 19
  - Endoiabidea 10
  - Endoiabidea 11
  - Ibañarrietako bidea 1
  - Ibañarrietako bidea 2
  - Katzaolabidea 2



ZESTOAKO UDALA

- Katzaolabidea 3
  - Katzaolabidea 4
  - Mardubidea 3
  - Mardubidea 6
  - Olaberribidea 3
  - Olaberribidea 45
  - Karmengo Amaren errepidea 1
  - Karmengo Amaren errepidea 17
  - Arroako industrialdea 909
- 
- 7-8 proiektu egingo dira auzo guztietarako.
  - Lizitaziora ateratzen dira proiektuak eta normalean Movistarrek gauzatzen ditu.
  - Erabiltzaile bakoitzak nahi duenarekin kontratatuko du internet.
  - Oraingoan kanalizatu berriak egingo dituzte zuntza bideratzeko.
  - Proiektuak aurrera eramateko jabe pribatuekin egon beharko dute. Jabe pribatuek betetzeko dokumentu batzuk prestatu dituzte, baimenak emateko. Orri horiek udaletxean egongo dira norbaitek nahi baditu kontsultatu edota hartu.
  - Zuntza etxeetara eramateko obragatik erabiltzaileei ez zaie ezer kobratuko.


## 1. Landa lursailen digitalizazioa

Aipatu da Foru Aldundiko katastroak ez dituela ondo jasotzen lursailen mugak eta azalerak. Hori dela eta, gero eta herri gehiagok digitalizatu ditu udalerriko landa lursailak: Urretxu, Ezkio Itsaso... Bertaratuei adierazi zaie Foru Aldundia ere, arazoaren jakitun izanda, duela urte batzuk, dirulaguntza lerro bat argitaratu zuela Gipuzkoako udalerrientzat. Azken urtetan inguruko hainbat herri jardun dute lan horretan, dirulaguntza hori lortuta: Aia, Azpeitia...

Nahiz eta Zestoako Udalak aurten digitalizazio lanak egiten hasteko asmoa izan, arrazoi ekonomikoak direla-eta, aurten ez dira hasiko. Datorren urtean ikusiko da azaroan hasteko modua dagoen. Printzipioz, 4-5 urtetako plangintza bat izango litzateke. Plangintza ziriborroaren maparen kopia banatu dira partaideen artean. Esan bezala, exekuzio epeetan atzerapena izango du.

### LANDA LURSAILEN DIGITALIZAZIOA

Plangintza ziriborroa (2024-2027)





ZESTOAKO UDALA

Honakoak azpimarratu dira:

- Ikusita, Udalean eskaera gehienak Aizarna eta Txiriboga ingurutik jaso direla, eremu honetatik hastea erabaki da.
- Lan handia da. Udalerriak azalera handia duenez, 4 urtetan banatzea proposatu du Udalak.
- Soilik landa lurreko partzelak aztertuko dira.
- Hasieran aurkezpen bilera bat egingo da Udaleko teknikariek proiektua azaltzeko.
- Lurjabeekin egiten den lehen bileran liburuxkak banatuko dira, horien gainean, proposamenak jasotzeko.
- Proposamenak jaso ondoren eta lursailak bertan ikusita, azken liburuxka bat banatuko da.
- Mugakideak mugekin ados ez badaude, lursaila katastroan dagoen bezala gelditzen da. Ados badaude, muga aldaketa egiten da.

Jakitera eman da banatu den plangintza-ziriborroa proposamen bat dela eta denborarekin aldaketak egon daitezkeela. Plangintza hau fintzen eta zehazten joango da Udala. Udalaren asmoa proiektua asko ez atzeratzea da.

Puntu honekin amaitzeko, adierazi da kontu hauetan dugun jakintza gorde eta zehaztuta gelditzea aberatsa dela eta oso baliagarria izan daitekeela hurrengo belaunaldietarako.

A.U.k dio entzun duela Foru Aldundiak dirulaguntza lerroa hamar urterako onartu zuela. Agian, ondoren, dirulaguntzarik ez dela argitaratuko gaineratu du eta hori kontuan hartzeko.

L.E.k aipatu du Arroagoian duten terrenoan hondakinak daudela, ondokoak bertara botatzen dituztelako. Lursailetik pasatzen den bidea herri bidea den argitu nahi du. Hori jakiteko, udaletxera bertaratu eta herri bideen inbentarioa kontsultatzea adostu da.

G.A.k ere Arroagoian Arbea inguruan ondoko jabeekin arazoak dituztela jakitera eman du.

## **2. Baserri bideen konponketak**

Aitor Ossak jakinarazi du 2016an Foru Aldundiak eskatutako inbentarioa hartu eta eguneraketak egiten ari dela udala baserri bideen konponketarako oinarri izateko. Guztira 100 bide eta 66 kilometro daude jasota inbentarioan. Horietatik asko egoera txarrean daude. Foru Aldundiak dirulaguntza ematerakoan kontuan hartzen dituen irizpideak aipatu dira: bideak zerbitzua zenbat ustialekuri ematen dion, erabiltzaile kopurua... Balorazioaren arabera, okerren daudenak honakoak dira: Lasorrekako bidea (Otola ingurua), Trukumanbidea, Santa Engraziako bentarako bidea, San Lorente bidea eta Urdanetabidea.

I.L.k dio Telerietxeberri eta ingurukoetara joateko bidea ere ez dagoela egoera onean. Bide hori publikoa ez dela argitu da, ondoko errepidea egin zenean hartu zuela izaera hori.



ZESTOAKO UDALA

A.A.k adierazi du Larrazabalbidea ere gaizki dagoela. Urteetan dabiltzala konpontzeko eskaera eginez, baina bideak egoera txarrean jarraitzen duela. A.U.k gaineratu du bidea konpontzeko dirurik ez dagoela erantzun izan duela udalak.

Olaberribidea ere egoera kaxkarrean dagoela esan du A.I.k. Olaberri baserrira joateko tunel azpia ere urarekin betetzen dela berri eman du M.N.Z.k. Batzuetan baserrira joateko pasatzeko lekurik gabe gelditzen dira.

J.M.I.k Ibañarrietako Astotxikibidea egokitzeko betelena noiz egingo den galdetu du. Informazio eguneraturik ez duela aipatu du Aitor Ossak, baina berririk izanez gero, jakinaraziko dela.

X.E.k Katzaolabidea ere zenbait zatitan ez dagoela ondo dio.

I.U.k herri bideen mantenuaz galdetu du (kunetak garbitzea...). Lan horietarako egutegi jakin bat ez dagoela aipatu da eta eskaera udaletxean aurkeztuta, baloratu izan direla horrelako lanak egitea, bide zehatz batzuetan.

### **3. Silo bola plastikoen bilketa**

Honakoak gogoratu dira:

- Plastikoak hileko bigarren asteartean jasotzen dira, zehaztutako puntuetan.
- Bezperan utzi behar dira bilketa puntuetan.
- Plastikoak ahalik eta garbienak utzi behar dira, lokatarik gabe, sokak kenduta eta aparte utzita, plastikoekin nahastu gabe.
- Jasotzen diren plastiko motak:
  - Siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza
  - Belar boletan erabiltzen den plastikoa
  - Negutegietan eta baratzetan lurra estaltzeko erabiltzen den plastikoa
  - Sokak eta plastikozko pentsu zakuak, bereizita.

Arroaerrekako puntuan edukiontzi edo egitura bat jartzea eskatu da, plastikoak jasotzeko. Egutegia ez dela errespetatzen aipatu da. Silo bola plastikoaren bilketak epe motzean ez duela aldaketarik izango (atez atekoa...) berri eman da.

### **4. Tokiko elikaduraren sustapena**

Aitor Ossak aipatu du legegintzaldi honetan lau zutabe nagusi landu nahi direla ingurumen arloan: hondakinak, energia, elikadura eta basoak. Tokiko elikadura, lehen sektorea eta baserritarren lanaren garrantzia azpimarratu ditu. Udalak bertan ekoiztea eta bertako produktuak kontsumitzea sustatu nahi dituela gaineratu du. Lehen sektoreari bultzada eman nahi dio udalak. A.U.k adierazi du udalak bideak ondo jartzeak erraztu dezakeela baserritarren lana.

Herritarrak informatu eta sentsibilizatzeko “Zestotik mahaira” agroekologia zikloa antolatu zuen lehengo urtean udalak (dokumentala, hitzaldia, sukaldaritza ikastaroa...). Balorazio positiboa egin zen, nahiz eta herritar gutxi agertu, hausnartu eta hitz egin zelako. Aurten abendua-urtarrila aldera antolatuko da.



ZESTOAKO UDALA

Bestalde, Biolurrek Iraetako Amilibia baserria erosi eta nekazaritza lurretan hainbat proiektu egiteko asmoa duela gogoratu du. Udalarentzat ekimen interesgarria dela dio eta babesa emateko asmoa dagoela. Horrez gain, herriko dendetan eta azoketan bertako produktuak saltzeko ekimenak antolatu nahian dabil udala, Urkomerekin lankidetzan. Urkomerekin eta Biolurrekin elkarlana egitea da asmoa. Amaitzeko, tokiko elikaduraren sustapenaren inguruko proposamenak eta ideiak ongi etorriak izango direla adierazi du Aitor Ossak.

M.A.k gaineratu du bertakoa jatea gehien baloratzen den garaian gaudela.

## **5. Basoak eta lursailak**

Aitor Ossak azaldu du baso publiko gutxi daudela udalerrian, lursail gehienak pribatuak direla. Udalak bertako basoak sustatu nahi ditu. Bertako espezieak babestu nahi dira, bertako biodibertsitatea ez galtzeko. Horretarako, udalak lurrak erosten hasi nahi du, ahal dena babesteko. Azpimarratu da lurrak erosteko prest dagoena udalarekin harremanetan jar daitezkeela.

Bestalde, jakitera eman du Ertxiñako artadia berreskuratzeko dirulaguntza bat lortu dela eta datozen hilabeteetan proiektu hori gauzatuko dela herriko lursailetan.

Baso kontuak bideratzeko erakundeak Tantai baso jabe kooperatiba eta Basoa fundazioa izan daitezkeela informatu du.

## **6. Komunikazio kanalak baserritarrekin**

Bertaratutako batzuek adierazi dute bilera deialdia postaz ez zaiela iritsi: Larrazabalbideko baserriak, Gure Ametsa Arroagoian... Hurrengorako kontuan hartuko da.

Panelekin lotuta, I.L.k jakitera eman du Arroaerrekan baserri kokapenen panela erorita dagoela.

A.A.k, bestalde, aipatu du Larrazabalbidearen seinalea puskatuta dagoela.

Adierazi da orain arte komunikatzeko erabili diren bideak eskutitza eta sare sozialak izan direla, gehienbat. Agian bide horiek erabilita deialdiaren berri ez dute izan batzuek. Hori dela eta, informazioa zuzenago jasotzeko, komunikazio kanala sortu da, whatsapppez, deialdiak, berriak... bidaltzeko. Komunikazio kanalak informazioa jasotzeko eta denak parte hartzeko txata dituela berri eman da. Hortaz, kanal horretan parte hartu nahi duenak telefonoak eman eta bertan sartuko ditugu.

Bilera bukatzeko abisatu da hurrengo baserritarren batzarraren berri komunikazio kanaletik emango dela.